
Lan-deialdia:

Berdintasun teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

ESKAINTZEN DA:

- Lanpostua DONOSTIAN, baina lan eremua Euskadi osoa izango da.
- Lanaldi osoko lan-kontratua eszedentzia bat betetzeko (ekainaren 30era arte).
- Urtean 28.862,85€-ko soldata gordina.
- EGKren barne hitzarmenak araututako lanpostu bat eta EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean.
- Lantalde gazte eta dinamiko batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal gazteriaren eskubideen alde lan egitea, bereziki emakumeen eta gizonen berdintasun alorrean.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Genero eta LGTB arloko politika publikoak ezagutu, hausnartu eta lantzea (Berdintasun Plana, Gazte Planak, eta abar).
- Elkarte, eragile, talde eta gazte parte-hartzaileekin harreman zuzena mantentzea eta genero eta LGTB kolektiboarekin lotutako proiektu eta prozesuak garatzea.
- Erakunde Publikoekin bitartekaritza eta elkarlana burutzea (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, mankomunitateak eta beste edozein), gazteria eta berdintasun sailekin.
- Lan arloari dagozkion proiektuak eta ekimenak diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu eta koordinatzea (EGKko I. Berdintasun Plana, Praktika Egokien Liburua, genero indarkeria eta LGTBfobia erasoen aurkako protokoloa, emakume gazteak eta enplegua, belaunaldien arteko feminismoa...).
- Elkarreek eta gazteek arlo honen gainean garatzen dituzten proiektuak/ekimenak ezagutzea eta haietan parte-hartzea, bereziki emakumeen eta gizonen berdintasun alorrean.
- EGKren lan arlo guztiekin ekintzak koordinatzea.
- Dagokionean komunikabide ezberdinetan adierazpenak eta analisiak egitea.

ESKATZEN DA:

- 30 urte baino gutxiago izatea.
- Goi ikasketak izatea. Edozein esparrutako ikasketak izanda ere (teknikoak zein gizarte gaietakoak), gizarte arloko eta/edo berdintasun arloko espezializazioa edo ikasketa gehigarriak egiten izana eskatuko da (gutxienez 150 ordukoa eta organo ofizial batek ziurtatua).
- Euskal gazteriaren egoera eta baldintza sozioekonomikoen eta, oro har, gizartearen errealitatearen ezagutza. Berdintasun arloko lege, programa, neurri eta proiektuak ezagutu.
- Euskal elkartegintzaren, gizarte mugimenduen eta parte-hartze modu ezberdinen ezagutza izatea, bereziki feminismoa eta berdintasunari dagokienez.
- Euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiteko eta idazteko maila altua (EGA, HABE 3...)
- Gazte lan taldeak eta eztabaida taldeak dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna eta esperientzia. Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- Legeak, dokumentu ofizialak eta txostenak landu, ondorioak atera, ikertu eta ekarpenak egiteko gaitasuna.
- Administrazioarekin harreman formalak bideratu eta interpelaziorako gaitasuna.
- Malgutasuna: ordutegi eta mugikortasun geografikoa.
- Ikasteko gaitasuna.

BALORATUKO DA:

- Lan taldean aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta ardurak hartzeko prestutasuna.
- Ekimen propioak autonomiaz garatzeko gaitasuna (beharrak hauteman, proiektuak diseinatu, ekarpenak barneratu, faseak diseinatu, helburuak lortu).
- Antolaketarako gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Pertsona sortzailea eta inizatibaduna izatea.
- Aldi berean hainbat eginbehar berean gauzatzeko gaitasuna.
- Ingelesa eta beste hizkuntza batzuen ezagutza.
- Informatika-ofimatika erabiltzen jakitea.

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO:

- Epea: apirilaren 24ra arte.
- Sartu eta [Datu babesaren politika](#) bete (**derrigorrezkoa**).
- Curriculum eta motibazio gutuna bidali egk@egk.eus helbidera. Gaiari "BERDINTASUN TEKNIKARIA" idatzi.
- Curriculum dokumentua honela izendatu: IzenAbizenak.CV.Berdintasuna.pdf/doc.
- Motibazio Gutuna honela izendatu: IzenAbizenak.KARTA_Berdintasuna.pdf/doc.

Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

Kurrikulumen bidalketa, apirilaren 24ra arte.

Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, apirilaren 27an.

Elkarrizketa Donostian, arratsaldean apirilaren 29an.

Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, maiatzaren 2an.

Lanean hasteko data, maiatzaren lehenengo astean.